

Epea amaituta erreklamaziorik ez bada,
behin-betiko bihurtuko da
onartutako eta baztertutako azterketarien
behin-behineko zerrenda.



Epea amaituta erreklamaziorik ez bada,
behin-betiko bihurtuko da
onartutako eta baztertutako azterketarien
behin-behineko zerrenda.

Epea amaituta erreklamaziorik ez bada,
behin betiko bihurtuko da
onartutako eta baztertutako azterketarien
behin-behineko zerrenda.

behin-behineko

(marra eta guzti)

Ohartu zaitez hitz bera (behin) errepikaturik dagoela.

BAINA

behin betiko

(marrarik gabe)

Hitz beraren bikoizketaz sorturiko elkarketak honako kasu hauetan idatzi behar dira marrarekin:

● A) Lehen osagaiak deklinabide-markarik ez duenean:

- | | |
|----------------|--|
| ● gorri-gorria | ● aurre-aurrean (aurre-aurreko...) |
| ● zuri-zuria | ● atze-atzean (atze-atzeko...) |
| ● beltz-beltza | ● albo-alboan (albo-alboko...) |
| ● txiki-txikia | ● ezker-ezkerrean (ezker-ezkerreko...) |
| ● ... | ● ... |

■ *Cyphochilus* kakalardoa zuri-zuria da.

■ Larruazalaren kolorea gorri-gorria da.

Hitz beraren bikoizketaz sorturiko elkarketak honako kasu hauetan idatzi behar dira marrarekin:

● B) Bi osagaiek atzizki **bera** dutenean:

- ✱ apur**ka**-apur**ka**
- ✱ gutx**ika**-gutx**ika**
- ✱ egun**ean**-egun**ean**
- ✱ laun**aka**-laun**aka**

- ✱ egun**ero**-egun**ero**
- ✱ aldi**ro**-aldi**ro**
- ✱ asti**ro**-asti**ro**
- ✱ ...

Hitz beraren bikoizketaz sorturiko elkarketak honako kasu hauetan idatzi behar dira marrarekin:

● C) Eta mota honetako elkarketetan (onomatopeiak, gehienbat):

✱ zehatz-mehatz

✱ nahas-mahas

✱ kili-kolo

✱ tipi-tapa

✱ aiko-maiko

✱ duda-muda

✱ mara-mara

✱ parra-parra

✱ bor-bor

✱ kili-kili

✱ ñir-ñir

✱ plisti-plasta

Marrarik gabe idatziko ditugu, ordea, lehen osagaiak deklinabide-marka badu.

● aurrez aurre (baina aurre-aurrean)

- ◆ Aurrez aurre suertatu ziren.
(aurre-aurrean suertatu ziren.)
- ◆ Aurrez aurreko atetik sartu behar duzu.
(aurre-aurreko atetik sartu behar duzu.)
- *Aurrez-aurre suertatu ziren.
(*Aurrez-aurreko atetik sartu behar duzu.)

● batik bat	(*batik-bat)
● behinik behin	(*behinik-behin)
● asterik aste	(*asterik-aste)
● kalez kale	(*kalez-kale)

...

...

EHULKUren aholkua

(behin-behineko / behin betiko)

